

IRAKASLEEN HIZKUNTZA ESKAKIZUNAK AUKERA ANITZEKO GALDEKIZUNA

HE1

- Proba honek 70 galdera ditu. Gainditzeko 45 puntu lortu behar dira.
- Lau aukeren artean erantzun **egokiena** aukeratu eta **erantzun-orrian** markatu.
- Erantzun okerrengeatik ez zaizu punturik kenduko.
- Erantzuteko denbora: **ordubete**.

1 Pilota-partidan, tanto batean huts egiten denean, zer egiten da?

- a) Laprast egin.
- b) Kale egin.
- c) Hanka sartu.
- d) Eginak egin.

2 Lauri eman zieten saria eta eskertu zuten.

- a) lau
- b) laurak
- c) lauk
- d) laurek

3 Lehen emakume alaia zen, baina senarra hil zitzaion eta du.

- a) gora jo
- b) adarra jo
- c) behea jo
- d) ertza jo

4 Partidaren emaitza asmatu zuen.

- a) amore emanda
- b) bete-betea
- c) aho bete hortz
- d) bertan behera

5 "Amari dirua emateko? Bai, nire esku". Zer esan nahi du?

- a) Dirua eskuan duela eta emango diola.
- b) Berak emango diola.
- c) Eskuan eramango diola amari.
- d) Amak dirua itxaroten duela.

6 Jertsea jantzi duzu.

- a) atzekoz aurrera
- b) atzea emanda
- c) atzeko alderantz
- d) atzeko aurrean

7 Zein da zuzena?

- a) Aspertuta-aspertuta nago!
- b) Asper-asper eginda nago!
- c) Aspertutago nago!
- d) Zeinen aspertuta nago!

8 "Horiek ezin ikusia zioten elkarri". Zer adierazi nahi du?

- a) Ustekabea.
- b) Bista txarra.
- c) Lotsa.
- d) Gorrotoa.

9 Atsegina EZ DENA da.

- a) galanta
- b) itzela
- c) sotila
- d) higuingarria

10 "Abiada horretan, istripurik izan ez duzunean!" Zer esan nahi du?

- a) Gutxigatik ez duzu istripurik izan.
- b) Abiadari esker ez duzu istripurik izan.
- c) Ozta-ozta izan duzu istripua.
- d) Gutxigatik izan duzu istripua.

11 Lehen Hezkuntzan ibili nintzen urteetan.

- a) maisutzat
- b) maisua
- c) maisutan
- d) maisu

12 1914an hasi zen

- a) Lehen Gerra Mundua
- b) Lehen Mundu Gerra
- c) Mundu Lehen Gerra
- d) Gerra Mundu Lehena

13 Idazlan guztien artean horixe dago idatzita.

- a) hobeto
- b) hobereena
- c) ondoen
- d) onena

14 Hamar herrialde dira eta hamar ordezkariak batzartu dira Agurainen.

- a) herrialdeetako
- b) herrialdeko
- c) herriko
- d) herrialdetako

15 "Mahuka ukondoraino bildurik zeraman". Nola zeraman?

- a) Elkarturik
- b) Josirik
- c) Tolesturik
- d) Luzaturik

16 "Gorbeiako aterpera ilundu baino lehen heldu zen". Aukeratu erantzun OKERRA.

- a) Zorionez!
- b) Eskerrak!
- c) Gaitz erdi!
- d) Haatik!

17 egiten banaute ere, ez da nire ahotik ezer aterako.

- a) Nereak
- b) Gogotik
- c) Eginak
- d) Txiki-txiki

18 "Nola doa partida?" Aukeratu erantzun egokia.

- a) Hirutik bi.
- b) Hiru bi.
- c) Hiru-bi.
- d) Hiru eta bi.

19 "Nor dator nirekin?" Zein EZ DA erantzun zuzena?

- a) Inor
- b) Inor ez
- c) Inor ere ez
- d) Inortxo ere ez

20 "Tramite ofizialetan okertzen naiz". Zein dago TXARTO?

- a) zenbaitzuetan
- b) batzuetan
- c) batzutan
- d) beti

21 Ez daukat inongo eragozpenik pozik egingo dut.

- a) baina
- b) behintzat
- c) hala ere
- d) eta

22 Zein dago TXARTO idatzita?

- a) Jaioberria
- b) Epaimahaia
- c) Urtemuga
- d) Eser lekua

23 Eskola-liburuen doakotasuna bideratzen legeak ezarri dira lurralde batzuetan.

- a) dituen
- b) duten
- c) dituzten
- d) duen

24 Hurrengo hitzen artean, zein dago GAIZKI?

- a) Anaia bat
- b) Burdina bat
- c) Mahaia bat
- d) Arantza bat

25 "Agindu zuen eta halaxe egin du". Zer esan nahi du?

- a) Hitza hautsi duela.
- b) Atzera egin duela.
- c) Uko egin diola.
- d) Hitza bete duela.

26 semea pilotaria da, igerilaria.

- a) Bataren / bestearen
- b) Bataren / bestearena
- c) Baten / bestearen
- d) Baten / besteren

27 "Batek daki noiz erantzungo duten". Zer esan nahi du?

- a) Batek baino ez dakiela.
- b) Inork ez duela sekula jakingo.
- c) Batek, behintzat, badakiela.
- d) Inork ez dakiela.

28 Aukeratu esaldi zuzena.

- a) Garagardoa ere dago hemen.
- b) Zer? Dakizu hori?
- c) Zatoz nirekin?
- d) Zoaz hortik zehar!

29 Azterketa gainditu du.

- a) % 44ek
- b) % 44k
- c) % 44ak
- d) % 44rek

30 9tik 29ra arte matrikula-epea zabalik dago.

- a) Hileko
- b) Hilearen
- c) Hilaren
- d) Hilekoaren

31 "Etorri al da Asier?" Aukeratu erantzun zuzena.

- a) Ez, bostetan etorria da.
- b) Ez, bostetan etorri da.
- c) Ez, bostetan etorriko da.
- d) Ez, bostetan etorri izan zen.

32 Nekez justifika jarrera horiek.

- a) iezazkidazu
- b) litezke
- c) dezakezu
- d) lirateke

33 Ezin konta inori gezurrik!

- a) gatzazkioke
- b) daiteke
- c) dakioko
- d) dezake

34 Aizu, utz bakean!

- a) gaituzu
- b) gaitzazu
- c) gatzazkizu
- d) zaiguzu

35 Elkarrekin topo egin genuen ikastaro

- a) beran
- b) berean
- c) berdinean
- d) bertan

36 Diskurtso horietan entzuten dira.

- a) tontakeria handiak
- b) tontakeri handiak
- c) tontakeriak handirik
- d) tontakeriarik handiak

37 Betidanik ezagutzen dut arreba eta konfiantza osoa dut

- a) berarengan
- b) berari
- c) berataz
- d) berakin

38 "Guztiok ginen etortzekoak; Mikelek,, ezetz esan du". Aukeratu TXARTO dagoena.

- a) ostera
- b) ordea
- c) behintzat
- d) berriz

39 "Bi horiek beti muturka". Nola dabilta?

- a) Keinuka.
- b) Musuka.
- c) Borrokan.
- d) Jolasean.

40 "Ogitartekoa ekarri dudan? Bai, zera!" Zer erantzun du?

- a) Baietz.
- b) Ezetz.
- c) Berak ekartzeko.
- d) Ekarri duela dagoeneko.

41 Euskaldun berrien ahalegina eta eskertu du sailburuak.

- a) goraiatu
- b) gorritu
- c) gomendatu
- d) gogaitu

42 Non dago ortografia-akatsa?

- a) Oihala / Oinutsik
- b) Ihintza / Ikatza
- c) Hautsa / Orratsa
- d) Behatza / Itsua

43 Aukeratu esaldi OKERRA.

- a) Etortzekotan, garaiz etorri!
- b) Egizu lan hori, behingoz.
- c) Hori nirengatik egina da.
- d) Zer dakar gaur periodikoak?

44 Ez zikindu liburua! Oso gaizki liburutegira horrela itzultzea.

- a) egongo zen
- b) leudeke
- c) egongo litzateke
- d) egongo liteke

45 Juantxo nahiko zakarra da, baina badaki goxoa ere.

- a) izatea
- b) izaten
- c) izaterik
- d) izan

46 "Kamiseta hutsean ikusi nuen hondartzan." Zer adierazi nahi du?

- a) Kamiseta jantzita zeramala.
- b) Kamiseta erantzita zeramala.
- c) Kamiseta falta zitziola.
- d) Ez zitziola kamisetarik ikusten.

47 Nola idazten da 3871?

- a) Hiru mila zortziehun eta hirurogeita hamaika.
- b) Hiru mila zortzirehun eta hirurogeitahamaika.
- c) Hiru mila zortziehun eta hirurogei eta hamaika.
- d) Hiru mila zortziehun hirurogeita hamaika.

48 Zein dago TXARTO?

- a) Zuk beste diru daukat nik.
- b) Mari bezain polita da Nekane.
- c) Nirea zurea beste polita da.
- d) Nik adina lagun ez daukazu.

49 Gehiago egin, baina ez ziguten utzi.

- a) genezakeen
- b) genukeen
- c) genezake
- d) izango genuke

50 Nonbait entzun duzula adierazteko partikula, zein da?

- a) ote
- b) omen
- c) al
- d) ohi

51 Hainbat ez ditu segurtasun-neurriak errespetatzen.

- a) itsasontzik
- b) itsasontzi
- c) itsasontziek
- d) itsasontziak

52 Zenbait hemen bizi ahal izateko paperak emango dizkiote.

- a) atzerritarri
- b) atzerritarrari
- c) atzerritarrei
- d) atzerritarreei

53 "Bonbak, merkatua zegoela, erori ziren". Zein da DESBERDINA?

- a) gainbehera
- b) gainezka
- c) beteta
- d) leporaino

54 "Aita etsita dago". Zer esan nahi du?

- a) Baikor dagoela.
- b) Haserre dagoela.
- c) Gaixorik dagoela.
- d) Esperantza galduta dagoela.

55 Deitu zenuen momentuan perretxikotan

- a) ibili nintzen
- b) ari izan nintzen
- c) nenbilen
- d) jardun nuen

56 Zein EZ DA zuzena?

- a) Zure ondoan nago.
- b) Zurekin maiteminduta dago.
- c) Liburuak irakurtzea gogoko dut.
- d) Elkar ezagutu ziren.

57 Jaitsi zaitez hortik,

- a) erori egingo zarela!
- b) erori egingo zara eta!
- c) erori egingo bazara!
- d) erori egingo zarenez!

58 Ama, oraindik zenbat egun oporretarako?

- a) falta dira
- b) falta dute
- c) faltatzen ari dira
- d) faltatzen dute

59 Non dago ortografia-akatsa?

- a) Mototsa
- b) Kokotsa
- c) Bildotza
- d) Oholtza

60 Badira pertsona azkar askoak

- a) erretzen jarraitzen dutela
- b) erretzen jarraitzen dutenak
- c) erretzen jarraitzen dituztenak
- d) erretzen jarraitzen dituenak

61 eta beranduago hasi, eta zailago egingo zaizu gidatzen ikastea.

- a) Gero / orduan
- b) Zenbat / orduan
- c) Zenbat / zenbat
- d) Gero / geroago

62 Zuk egin arabera egingo dugu guztiok.

- a) duzun
- b) duzunen
- c) duzunaren
- d) duzuneen

63 Eman ziguten

- a) zer pentsatu
- b) ezer eginik
- c) ezer ikusteko
- d) zer esateko

64 "Zertan gelditu zarete?" Aukeratu erantzun OKERRA.

- a) Arratsaldean etortzekotan.
- b) Arratsaldean etortzerakoan.
- c) Arratsaldean etorriko garela.
- d) Arratsaldean etortzeko.

65 "Baraurik geunden oraindik". Zer adierazi nahi du?

- a) Ez zutela logurarik.
- b) Gosaldu gabe zeudela.
- c) Bare-bare zeudela.
- d) Oso urduri zeudela.

66 Berehala ailegatuko dira, autoz

- a) bait doaz
- b) baitdoaz
- c) baidoaz
- d) baitoaz

67 Zuk esan zeharo hunkitu

- a) duzuna / zait
- b) duzunak / nau
- c) duzuna / nau
- d) duzunak / dit

68 Gizenegi daukazu semea; ez utzi horrenbeste

- a) jaten
- b) jateari
- c) jaterik
- d) janaria

69 Zein EZ DA sail berekoa?

- a) Pagoa
- b) Haritza
- c) Lizarra
- d) Latza

70 "Horditurik egoten da, maiz". Nola egoten da?

- a) Tente.
- b) Horiturik.
- c) Aseturik.
- d) Mozkoturik.

ATARIKO PROBA: ERANTZUNAK

HE1

1	B	11	D	21	D	31	C	41	A	51	A	61	B
2	D	12	B	22	D	32	B	42	C	52	A	62	C
3	C	13	C	23	B	33	C	43	C	53	A	63	A
4	B	14	A	24	C	34	B	44	C	54	D	64	B
5	B	15	C	25	D	35	B	45	B	55	C	65	B
6	A	16	D	26	B	36	A	46	A	56	D	66	D
7	B	17	D	27	D	37	A	47	A	57	B	67	B
8	D	18	D	28	D	38	C	48	C	58	A	68	A
9	D	19	A	29	B	39	C	49	A	59	C	69	D
10	A	20	C	30	C	40	B	50	B	60	B	70	D